

TXOSTENA: Parte hartzeko ordenantzarako oinarriak

PROZESUA: Elgeta: Danon artian danon herrixa parte hartzeko prozesua

DATA: 2015eko azaroaren 30

EGILEAK: Olatz Estensoro eta Agurtzane Loidi



Honako txosten honetan Elgetan 2015eko azaroan “Elgeta, danon artian, danon herrixa” parte hartzeko prozesuaren barruan jasotakoa biltzen da; herriko etxe guztietara banatutako inkesten erantzunetan, sakoneko elkarrizketetan eta herritarrekin egindako bigarren saioan jasotakoa.

INFORMAZIOA

Gaur egun Elgetako udalak herritarrek informatzeko erabiltzen dituen bideak ondorengoak dira:

- Herriko etxeetako gutun-ontzi guztietara informazioa bidali
- Hedabideetan informazioa zabaltu
- Teknologia berriak: udaleko webgunean, edo facebook eta twitterren bidez
- Ahoz ahokoa
- Batzorde irekiak eta batzordeetan landuko diren gaiak.

Bileran parte hartu dutenen iritziz gaur egun erabiltzen diren bideak egokiak dira eta nahi duenak informatuta egoteko bideak baditu.

Informazioa zabaltu aurretik herritar guztiei informazioa lortzeko dauden bideak jakinarazi beharko litzaizkieke eta aipatutako bideez gain, egokia litzateke ondorengo hauek ere kontuan hartzea:

- Aldizkaritxo bat kaleratzea sei hilean behin edo urtean behin balantzea eginaz
- Etxeetara banatzen dena euskarari diskriminazio positiboa eginez banatu beharko litzateke, gaztelaniazko laburpen batekin
- Tablero gehiago jartzea herrian, handiagoak, ofizialak (adibidez, udaletxearen goiko aldean)
- Batzordeetan lantzen denaren laburpena herri osora zabaltzea
- Atarietan bandoa jartzea, (gaiaren arabera kolore desberdinak erabiliz) edo garrantziaren arabera: bandoa bakarrik ohar tauletan jartzea, atarietan jartzea, etxe guztietara bidaltzea...
- Panel elektronikoetan jartzea, hitz gutxitan egongo dena jakinarazteko.
- Mugikorretako aplikazioak erabiltzea egingo diren gauzen berri emateko. (*Elgeta memorian* aplikazioan bezala).

PARTE HARTZEKO BIDEAK

Gaur egun Elgetako herritarrek parte hartzeko dituzten bideak ondorengoak dira:

- Udaletxeko ateak zabalik daude, harreman pertsonalen bitartez, kalean zuzenean zinegotzi edo alkatearekin hitz eginez
- Gaikako batzordeen batzar irekietan parte hartuz
- Idatziak udalean sartuta
- Webgunean galderak egiteko atalean galdera eginez edo iritzia emanez
- Inkestak
- Sare sozialak

Bileran parte hartu dutenen iritziz, parte hartu nahi duenak baditu bideak, baina motibazioa falta da eta hau egoera sozial orokorra da.

Herritar guztiei parte hartzeko dauden bideak jakinarazi beharko litzaizkieke eta aipatutako bideez gain, egokia litzateke ondorengo bide hauek ere kontuan hartzea:

- Harreman zuzena mantentzea, herri txikia izateak hori ahalbidetzen duelako
- Batzorde erabakitzaileak izatea eta ez soilik informatibo edo kontsultiboak
- Udalaren interesaren arabera, jendearengana gerturatu eta bilerak egin auzoz auzo, kalez kalekoak edo atariz atarikoak
- Gai garrantzitsuak daudenean gaiaren inguruko bilerak egitea
- e-mailez iritzia ematea
- webean buzoi irekia jartzea (batzuen ustez bide hau mugatuagoa da eta proposamenen kalitatea ez da hain ona)
- Sare sozialetan eztabaida zabaltzea iritzia jaso nahi den gaiaren inguruan
- Auzolana eskatzea panel elektronikoaren bidez

Aipatutako bideak osagarriak izan daitezke elkarren artean eta gaiaren arabera bide bat baino gehiago erabili beharko dira ahalik eta parte hartze zabalagoa izan dadin, aurrez jakinik parte hartzeko prozesu presentzialetan herritarren %3ak baino gehiago parte hartzea zaila dela.

PARTE HARTZEA: INTERESGARRIA EDO DERRIGORREZKOA:

Herritarren parte hartzea beti izango da interesgarria, baina:

- Jende guztiari eragiten dioten gaiak direnean.

Herritarrei derrigorrez galdetu beharko litzaieke, esate baterako, kasu hauetan:

- Udala limite legaletik 2 puntu zorpetzea suposatzen badu
- Aurrekontu osoari % 20ri edo gehiagori eragiten dien kasuetan

Herritarrei zela galdetu erabaki beharko litzateke edo bide hauek erabili beharko lirateke: bilera irekian, komisio irekian, herri kontsulta baten bidez...

Herri galdeketa planteatu daiteke esate baterako:

- Herritarren aldetik 100 firma lortuz gero, hau da herritarren %10ek eskatzen duenean.

Dena dela herri kontsulta egin aurretik auzoz auzoko informazio bilerak egin beharko lirateke eta parte hartzaileen iritzia jaso beharko litzateke.

PARTE HARTZEKO PROZESUAK KONTSULTIBOAK EDO ERABAKITZAILEAK:

Galdeketa bat egiterakoan, korporazioak erabaki beharko luke parte hartzea zenbatekoa izan beharko litzatekeen galdeketa horren emaitza erabakitzailea izateko. Parte hartzearen zenbatekoa gaiak sortzen duen interesaren arabera zehaztu beharko litzateke.

UDALAK BETE BEHARREKO GUTXIENENKO BALDINTZAK

Parte hartzeko modu desberdinak daude (auzolanean, bileretan, herri kontsulta bat...) horregatik bete beharreko gutxieneko baldintzak desberdinak izango dira. Hala ere kontuan hartu beharko direnak:

- Egiten diren eskaeren eta idatzien erantzuna ematea beti
- Informazioa ondo ematea, (bilerak eginez lehen aipatu diren moduetan adibidez)
- Informazio hori jasotzeko eta zabaltzeko lana egitea
- Gardentasuna, prozesu guztian informazioa ematen joatea, aukera guztiak zabalik edukitzea eta emandako hitza betetzea
- Informazioa ematea, diagnostikoa egitea, ekarpenak entzun eta jasotzea gaiaren arabera, erabakia hartu batzordean bertan eta erabakia herriari zabaltzea